



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENSA-OHARRA

### Bizkaiko Aurrekontuei egindako zuzenketa-eske partzialen gaineko eztabaidea

# Batzar Nagusiek Bizkaiko Aurrekontuen zuzenketa-eske partzialen gaineko eztabaidea itxi dabe

- **Bigarren eztabaida-saioa Ekonomia Sustatzeko Sailaren, Ingurumen Sailaren, Kultura Sailaren, eta Ogasun eta Finantza Sailaren irizpenen onarpenagaz amaitu da.**
- **Bizkaiko Talde Popularraren hiru zuzenketa-eske eta Euzko Abertzaleak Taldearen zuzenketa-eske bat sartu dira amaierako agirian, beste 47 atzera bota ostean.**

### **Bilbon, 2013ko urtarrilaren 31n.**

Bizkaiko 2013. urterako Aurrekontuen Proiektuak beste izapide parlamentario bat pasau dau gaur, Bizkaiko Batzar Nagusietan. Ekonomia Sustatzeko Foru Sailaren, Ingurumeneko Foru Sailaren, Kulturako Foru Sailaren, eta Ogasun eta Finantzen Foru Sailaren kontu publikoei aurkeztutako zuzenketa-eske partzialak eztabaidatu dira. Bizkaiko parlamentuaren Bilboko egoitzan izandako Ekonomia eta Ogasuneko lau batzordeen amaierak aurkeztutako 4 irizpenen onarpena ekarri dau; Euzko Abertzaleak Taldearen (PNV) ordezkarien aldeko 6 botogaz, Bizkaiko Talde Popularraren (PP) 2 abstentziogaz eta Bilduren (3 ordezkari) eta Euskal Sozialistak Taldearen (2) kontrako 5 botogaz onartu dira irizpenak. Amaierako agiriak PPren hiru zuzenketa-eske eta PNVren zuzenketa-eske bat be sartuko ditu, Bilduren edota PSEren beste 47 atzera bota ostean.

Saio parlamentarioa Ekonomia Sustatzeko Sailaren aurrekontuari aurkeztutako zuzenketa-eskeak eztabaidatu dituan batzordeagaz hasi da. Saio honetan, talde batzarkideen 16 zuzenketa-eske aztertu dira guztira. Bik baino ez dabe pasau (bat PPrena eta bestea PNVrena) irazki parlamentarioa. Popularraren ekimenaren ondorioz, 300.000 euroko partida ezarriko da Bizkaiko merkataritzari mikrokredituak emoteko programa bat martxan ipinteko; hain zuzen be, mailegu txikiak emongo dira, negozio barriak zabaltzeko edo mota horretako negozioak mantentzeko; zuzenketa-eske abertzalearen bitartez, barriz, aurrekontu-testuan antzemondako akats bat zuzendu da.

Ingurumen Sailari egindako emakida ekonomikoen gaineko ondorengo batzordean, taldeek 8 zuzenketa-eske aztertu ditue guztira. Jagokozan bozketak egin ostean, PPren 2 proposamenak baino ez dira onartu; bat, 100.000 euroan gehitzeko Bizkaiko aisialdi-eremuak mantentzeko partida ekonomikoa, eta bestea, barriz, Aldundiak hitzarmena sinatu dagian URAgaz (Uraren Euskal Agentzia), herritarrei zuzendutako alerta “zuzen eta berehalakoa” emoteko sistema bat ezartzeko, Gobela errekak izan ahal dauzan uholdeen aurrean.

Goizeko eztabaidea Kultura Sailaren kontuei aurkeztutako zuzenketa-eske partzialen gaineko eztabaideagaz amaitu da. Beste batzorde batzuetan jazo danez, Talde Popularraren zuzenketa-



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

eske bat baino ez da onartu; horren bitartez, Foru Aldundiak 100.000 euroan gehitu dau Bizkaiko kirol klubuen beharrianak estaltzeko bideratutako partida ekonomikoa. Gainontzeko 11 zuzenketa-eskeak –guztiak Bilduk aurkeztutakoak– atzera bota dira.

#### ARRATSALDEKO SAIOA

Zuzenketa-eskeen izapide parlamentarioari amaiera emoteko, arratsaldean batzorde bat egin da Ogasun eta Finantzen foru aurrekontuaren eta Testu Artikuluaren alderdiren bat aldatzeko. Sailari aurkeztutako zazpi zuzenketa-eskeak eta Aurrekontuen Testu Artikuluaren alderdiren baten aldaketak eskatzen zituen zortziak atzera bota dira.

Lurraldeko kontu publikoen behin betiko onarpena datorren astean amaituko da seguruenik, Gernikan egingo dan osoko batzar baten; izan be, bertan, Ekonomia eta Ogasuneko batzorde honeetan talde batzarkideek erreserbatutako zuzenketa-eskeak aztertuko dira. Osoko batzar horretarako deialdia astelehenean (zezeilak 4) egingo da, Bozeramaileen Batzarraren ostean.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

### Comisiones de Economía y Hacienda

---

# Las Juntas Generales cierran el debate de las enmiendas parciales de los Presupuestos de Bizkaia

- **La segunda jornada de debate de estas enmiendas termina con la aprobación de los dictámenes de los departamentos de Promoción Económica, Medio Ambiente, Cultura, y Hacienda y Finanzas.**
- **Se incorporan al documento final tres enmiendas del Grupo Popular Vizcaíno y una del Grupo Nacionalistas Vascos, tras ser rechazadas otras 47.**

Bilbao, a 31 de enero de 2013.

El Proyecto de Presupuestos de Bizkaia para el año 2013 ha pasado hoy un nuevo trámite parlamentario en las Juntas Generales de Bizkaia. Se debatían las enmiendas parciales a las Cuentas públicas de los departamentos forales de Promoción Económica, Medio Ambiente, Cultura, y Hacienda y Finanzas. El final de las cuatro comisiones de Economía y Hacienda celebradas en la sede bilbaína del parlamento vizcaíno, ha deparado la aprobación de los respectivos dictámenes presupuestarios que se presentaban con los 6 votos favorables de los representantes del Grupo Nacionalistas Vascos (PNV), las 2 abstenciones del Grupo Popular Vizcaíno (PP) y los 5 votos contrarios que sumaban los junteros de Bildu (3 representantes) y los del Grupo Socialistas Vascos (2). El documento final incorporará tres enmiendas parciales del PP y una más del PNV, al tiempo que se rechazaban otras 45 de Bildu y 2 del PSE.

La jornada parlamentaria ha comenzado con la comisión que debatía las enmiendas presentadas al presupuesto del área foral de Promoción Económica. En esta sesión, se han tratado un total de 16 enmiendas de los grupos junteros. Sólo dos, una del PP y otra del PNV, han pasado el “filtro” parlamentario. Mientras que la iniciativa de los populares conlleva establecer una partida de 300.000 euros para la puesta en marcha de un programa de microcréditos al comercio vizcaíno, que va dirigido a la concesión de pequeños préstamos para apoyar la apertura de nuevos negocios o su mantenimiento, la enmienda nacionalista ha servido para subsanar una errata en el texto presupuestario.

En la comisión posterior sobre las consignaciones económicas al departamento de Medio Ambiente, los grupos se han pronunciado sobre un total de 8 enmiendas. El resultado de las correspondientes votaciones ha deparado que sólo se acepten las 2 propuestas del PP, una para incrementar en 100.000 euros la partida económica destinada al mantenimiento de las áreas de esparcimiento de Bizkaia, y la otra para que la Diputación firme un convenio con URA (la Agencia Vasca del Agua) con el propósito de que se implante un sistema de alerta “directa e inmediata” a los vecinos ante posibles inundaciones del río Gobelás.

El debate matinal ha terminado con el debate de las enmiendas parciales presentadas a las cuentas del Departamento de Cultura. Como ha sucedido en las comisiones anteriores,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

únicamente se ha aceptado una enmienda del Grupo Popular a través de la cual la Diputación foral aumentará en 100.000 euros la partida económica destinada a cubrir las necesidades de los clubes deportivos de Bizkaia. Las 11 enmiendas restantes –todas ellas presentadas por Bildu– han sido rechazadas.

#### SESIÓN DE TARDE

El trámite parlamentario que suponía el estudio y debate de las enmiendas parciales ha concluido por la tarde con la celebración de la comisión destinada a modificar algún aspecto del presupuesto foral de Hacienda y Finanzas y del Texto Articulado de la Norma Foral. Las siete enmiendas presentadas para la modificación de algún programa del fisco vizcaíno y las ocho que reclamaban cambios en algún aspecto del articulado de los Presupuestos no han sido aceptadas.

#### EXAMEN FINAL

La aprobación definitiva de las cuentas públicas del Territorio finalizará probablemente la semana próxima con un pleno en Gernika en donde se analizarán las enmiendas reservadas por los grupos junteros en estas comisiones de Economía y Hacienda. La convocatoria de esta sesión plenaria se realizará el lunes, 4 de febrero, tras la reunión de la Junta de Portavoces.